

JARDUERAK

Gure enpresak hainbat funtsezko jarduera egingo ditu. Jarduera hauek hiru talde nagusietan sailka daitezke: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak. Gure produktua, hau da, programaren ekoizpena gure esku egongo da; beraz, ez dugu beste enpresengan lan hau utziko.



Gure programaren diseinua ere kontuan hartuko ditugu, erabilpen atsegina eta erraza izan dadin, betiere programak duen garrantzia kontuan hartuz.



Beste aldetik, bezeroarekin harremanak izango ditugu, dituen arazoak eta kezkak argituz. Horrela ez da inoiz laguntzarik gabe geratuko, eta programaren erabateko erabilera ahalbidetuko du. Horretarako, telefonoa, posta elektronikoa eta sare sozialak erabiliko ditugu.

Azkenik, eta aurrekoarekin lotuta, sareko jarduerak izugarri garrantzitsuak izango dira, bai bezeroarekin kontaktuan egoteko baita ospea eta diru-sarrera gehiago izateko ere, produktua erakargarriagoa nahiz ezagunagoa izan dadin.

